ASTEKARIA - 2010eko maiatzaren 21ean - XIV. urtea - Usurbil, 408. zenbakia

# Noaua !!

www.noaua.com



Igandean Sagardo Eguna;
ale honekin gehigarri berezia




# Usurbil eta Donostiako Ospitaleak lotzen ditu egunero bus zerbitzu berriak


Rafa
iturgindegia
• Kristaldegiko lanak
• Kristalezko mahaiak
• Segurtasun beirak
• Kristalezko luzeroak
• Klimalit
astegunetan: 10:30 -13:30 eta 16:30 -19:30
larunbatetan: 10:00 - 13:00
Bordaberri kalea 1, 1 behea • ✆ 943 36 80 04


antenas
Telemar
1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.
tdt
elkano kalea 13 HERNANI
Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com
DIGITAL+
teledonosti
etb


+1
BADUGU
POZIK
EGOTEKO
ARRAZOI
BAT GEHIAGO.
+1
hurbilago
Usurbil

## Albistea iruditan

# Udan hasiko dira Oiardo Kiroldegia handitzeko lanak

Egungo fatxada aldetik handitzeko asmoa du Udalak Oiardo Kiroldegia. Kirol Patronatuak astelehenean burututako bilkuran berri eman zuenez, udan hasiko dira lanak. Aldagela edota hainbat kirol ekintza burutzeko balio anitzeko gela gehiago eraikiko dira. Arranpa bat ere jartzeko asmoa dute Udarregi ikastola aldetik goiko solairura igo ahal izateko. Lanek iraun artean, Kiroldegia zabalik mantentzeko asmoa dute.

Bestalde, atzerapenik ez bada Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hilabete amaieran erabakia kaleratu ostean kirol arloko diru-laguntzak eskatzeko hogei eguneko epea zabalduko dela iragarri du Kirol Patronatuak.




ASTELEHEN HONETAN BILDU ZEN KIROL PATRONATUA. BESTALDE, KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA LASTER ZABALDUKO DA.

## Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

MIKEL LABOA PLAZAKO ESKULTURA ______ 6. OR.

SANTIXABELAK: EKAINAK 30-UZTAILAK 4 ______ 7. OR.

POLTSA BERRERABILGARRIAK ______ 9. OR.

LARUNBATEAN, ANTZERKIA SUTEGIN ______ 10. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL



MAIALEN UNANUE

# Ez dut zinemara joan nahi, eskerrik asko

Zinearen historia deitzen den ikasgai bat dut unibertsitatean, ikasleon iritziz, ero xamar dagoen irakasle batek emana. Pelikula mutuekin hasi ginen ("Las dos huérfanas", Nosferatu), Chaplin-en "Luces de la Ciudad"-ekin jarraitu genuen zine mutuaren eta mintzodunaren arteko trantsizio moduan eta, orain, Truffaut-en "La piel suave"-n murgilduta gaude. Ez naiz inoiz izan oso zine zalea, baina ikasgai hau benetan interesgarria iruditzen zait. Izan ere, asignatura hau eduki ez banu, ez bainituzke sekula ikusiko film horiek ziurrenik.

Aitortu beharra dut duela gutxira arte txuri beltzean diren pelikulek ez nindutela gehiegi erakartzen, baina orain kontziente naiz asko dugula haiengandik ikasteko. Ikusgarria da garai bateko zinegileek literatura eta zinea nola uztartzen zituzten ikustea. Are ikusgarriagoa nola lortzen zuten zinearen bidez jendeari mezuak helaraztea.

Bada egile bat zinez maitemindu nauena: Charles Chaplin da bera. Hain muturrekoak diren umorea eta tragedia lotzeko abilezia izugarria zuen gizon honek. Duela gutxi zinegile ingeles honen "El gran dictador" filma ikusteko aukera izan nuen, eta berriro ere, liluraturik utzi ninduen. Film honetan Chaplinek bi paper antzezten zituen; alde batetik, Hinkel-en pertsonaia (Hitler sinbolizatuz) eta, bestetik, bizargin judutar batena. Pelikularen bukaerako zatia izan zen gehien gustatu zitzaidana: Tomaniako (Alemania sinbolizatuz) soldaduek akats baten ondorioz bizargina jartzen dute mikrofonoaren aurrean, milioika esklaboren aurrean eta, egoera aprobetxatuz, bizarginak Hinkel-ek sekula esan/pentsatuko ez lituzkeenak askatzen ditu. Arreta gehien deitzen duena zera da, mikrofonoaren aurrean nazional sozialismoa gogor kritikatzen duen bitartean begirada kamerarantz zuzentzen duela zuzenean eta, momentu horretan hitz egiten ari dena, ez da ez bizargina, ez aktorea, ez eta zinegilea ere. Une horretan ikusleari mintzo zaiona pertsona soil bat da, bihotzetik zuzenean hitz egiten ari dena.

Honekin zera esan nahi dut, oraingo produkzioak, "kartelerak" ikusita negargura sartzen zaidala; artea izatetik gutxi duen hizketaldi absurduez eta txokolatez bustitako amaierez jositako ustezko filmak saltzen dizkigute.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - **Maialen Unanue** - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# Santueneko Argazki Lehiaketa, azken txanpan

Udaberria, hori izango da argazki lehiaketa honen gai nagusia. Lehiaketa honetan Santuenea elkarteko edozein bazkidek har dezake parte 14 urte bete gabe baldin baditu. **Izena emateko epea maiatzaren 22an amaituko da.** Ludotekako ordutegian egin daiteke inskripzioa.

Argazki bakarra aurkeztuko da eta tamaina normalekoa izango da (bertikala edo horizontala).

Epaimahaia Kultura departamentuko teknikariak, Kulturako zinegotziak eta Santuenea elkarteak izendaturiko ordezkariek osatuko dute.

Aurkeztutako argazkiak hirutan sailkatuko dira: 4-8 urte bitartekoak, 8-11 urte bitartekoak eta 11-14 urte bitartekoak, eta epaileek ere 3 balorazio egingo dituzte.

Adin bakoitzeko argazki bat aukeratuko da eta bakoitza 50 x 50 formatuan handituko du elkarteak. Handitutako argazki horiek prentsan argitaratuko dira eta ikusgai jarriko dira leku ezberdinetan. Irabazleei formatu handiko argazki horiek emango zaizkie kuadro batean enmarkaturik eta irabazle ohartxoarekin.

Lehiaketan parte hartu duten guztiei sari txiki bat emango zaie.

Argazki hauek aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a izango da, arratsaldeko 19:00etan. Santueneko ludotekan aurkeztuko dira argazkiak, gutunazal itxi batean, azalean izen abizenak eta adina jarriaz.

Irabazleen izenak ekainean emango dira ezagutzera.






# Bus zerbitzu berri batek Donostiako Ospitaleak eta Usurbil lotzen ditu egunero

**Ospitalera joan behar duten Usurbil edo Zubietako bizilagunek, aurrerantzean autoa etxean uzteko aukera izango dute, bidaia autobusez egin baitezakete. Usurbil, Santuenea, Zubieta eta Lasarte-Orian astelehenetik ostiralera hamahiru bidaia egingo dituen bus zerbitzua martxan jarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Buruntzaldean abian jartzen duen ezaugarri hauetako bigarren bus zerbitzua da.**

Maiatzaren 17az geroztik Usurbil, Zubieta eta Lasarte-Oriako bizilagunek ospitalera joan etorriak autobusez egin ditzakete, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri eta TSST enpresak eskaintzen duen bus zerbitzu berriari esker.



ASTELEHEN HONETAN JARRI ZEN MARTXAN BUS ZERBITZU BERRIA. IRUDIAN, LEHEN BIDAIARIAK.

### Astelehenetik ostiralera

Zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da aurrerantzean. Goizeko zazpiak pasatxoan hasi eta iluntzera arte, autobusak egunero hamahiru bidaia egingo ditu, honako geltokietan gelditzuz: Bordatxo, Atallu Industrialdea, Santuenea, Learritza bidea, Zubieta herrigunea, Hipodromoko gurutzegunea, Oria ibaiko zubia, Hipodromo ibilbidea, Tajamar gurutzegunea (dorretxea), Donostia etorbidea, Errekalde, Galarreta, Oriamendi pasealekua, Begiristain doktorea, Poliklinika Gipuzkoa, Onkologikoa eta Donostia Ospitalea. Usurbilera itzultzeko ospitaleetan autobusa hartu, eta aipatu geltoki guztietatik igaroko da bus zerbitzu berria.

### Zerbitzua, ordubetero

Ordu hauetan abiatuko da bus zerbitzu berria Bordatxo paretik: 7:15, 8:15, 9:15, 10:15, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:45, 18:45, 19:45, 20:45. Zubietara hamar minutuko tartean ailegatuko da eta ibilbidearen amaierara, ospitaleetara iristeko ordu erdi beharko du. Ospitaleetatik berriz, ordu hauetan hartuko du autobusak Usurbilerako bidea: 7:45, 8:45, 9:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15. Hogei minutuan Zubietara ailegatuko da, eta ordu erdian Usurbilera.

### Hogei eserleku

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamenduak 190.000 euroko inbertsioa bideratu du egitasmo honetara. Bidean joan etorriak egiten ibiliko den autobusak hogei eserleku ditu, eta ezinduentzat egokitua dago.

Usurbil, Zubieta eta Lasarte-Oria ospitaleen gunearekin lotzen duen zerbitzu berriaz gain, Buruntzaldea mailan bada antzeko beste bus zerbitzu bat ere. Kasu honetan, Andoain, Urnieta eta Hernanitik osasun zentro gunera doana. Urtarrilaren 4an abian jarri zutenetik, Aldundiak kaleratu dituen datuen arabera, 42.101 bidaiarik baliatu du aipatu zerbitzua.

## Geltokia, Bordatxo parean

**Ospitaleak-Usurbil** (ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN)

| Ospitaleak | Lasarte | Zubieta | Usurbil |
|---|---|---|---|
| | 07:00 | 07:05 | 07:15 |
| 07:45 | 08:00 | 08:05 | 08:15 |
| 08:45 | 09:00 | 09:05 | 09:15 |
| 09:45 | 10:00 | 10:05 | 10:15 |
| 11:00 | 11:15 | 11:20 | 11:30 |
| 12:00 | 12:15 | 12:20 | 12:30 |
| 13:00 | 13:15 | 13:20 | 13:30 |
| 14:00 | 14:15 | 14:20 | 14:30 |
| 15:00 | 15:15 | 15:20 | 15:30 |
| 16:00 | 16:15 | 16:20 | 16:30 |
| 17:15 | 17:30 | 17:35 | 17:45 |
| 18:15 | 18:30 | 18:35 | 18:45 |
| 19:15 | 19:30 | 19:35 | 19:45 |
| 20:15 | 20:30 | 20:35 | 20:45 |

**Usurbil- Ospitaleak** (ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN)

| Usurbil | Zubieta | Lasarte | Ospitaleak |
|---|---|---|---|
| 07:15 | 07:25 | 07:30 | 07:45 |
| 08:15 | 08:25 | 08:30 | 08:45 |
| 09:15 | 09:25 | 09:30 | 09:45 |
| 10:15 | 10:25 | 10:30 | 10:45 |
| 11:30 | 11:40 | 11:45 | 12:00 |
| 12:30 | 12:40 | 12:45 | 13:00 |
| 13:30 | 13:40 | 13:45 | 14:00 |
| 14:30 | 14:40 | 14:45 | 15:00 |
| 15:30 | 15:40 | 15:45 | 16:00 |
| 16:30 | 16:40 | 16:45 | 17:00 |
| 17:45 | 17:55 | 18:00 | 18:15 |
| 18:45 | 18:55 | 19:00 | 19:15 |
| 19:45 | 19:55 | 20:00 | 20:15 |
| 20:45 | 20:55 | 21:00 | |

# Mikel Laboa plazako eskultura inauguratu dute

**Mikel Laboa plazak badu eskultura igaro den astetik. Igandean inauguratu zuten udal ekitaldi batean, Laboaren omenez haren izena daraman plazan. "Ikimilikiliklip" eskultura, Juanjo Arangurenek sortua da. Iaz Udalak antolatutako lehiaketa irabazi zuen. Hogeitik gora lagunek parte hartu zuten ekimenean, eta haietako asko igandeko inaugurazio ekitaldian egon ziren. Udalaren partetik sari bana jaso eta taldeko argazkia atera zuten.**

Ugaitz Agirre gazteak aurkeztutako inaugurazio saioak gehiagorako eman zuen halere. Mikel Laboaren abestiak entzuteko aukera egon zen, Zumarte Txiki abesbatzaren eta Kantu Taldekoen eskutik.



LEHIAKETAN PARTE HARTU ZUTEN ARTISTA GUZTIEI OPARI BANA EGIN ZIEN UDALAK.

### Laboari eskainitako liburua

Zabalik jarraitzen du bestalde, Mikel Laboaren omenez berari zerbait idatzi nahi dionarentzat, Udalak kaleratu zuen liburua. Iaz, Mikel Laboa plaza inauguratu zutenean zabaldu eta gerora Sutegi udal liburutegira eraman zuten. Igandean berriz herritarren esku jarri zuten Mikel Laboa plazan.

Ekitaldi amaieran, besteak beste, bere alargun Marisol Bastida hurbildu zen esker hitzak idaztera.

# 21 herritarrek izena eman dute Maixu etxeko etxebizitzetan

Itxi da Maixu etxeko udal jabetzako sei etxebizitzetan izena emateko tartea. Maizterrak aukeratzeko Udalak maiatzaren 6ra arte zabaldu zuen epean, 21 herritarrek izena eman dute. Lehiaketako parte hartzaileei zuzenduta, hilaren 21era arte hamar eguneko tartea zabaldu du Udalak, haietako inork dokumentazioren bat aurkeztea falta bazaio, hala egin dezan. Gerora, onartutako eta baztertutakoen zerrenda argitaratuko da eta azkenik, oraindik data zehaztu gabe dagoen arren, Udarregi ikastola ondoan kokatutako sei etxebizitzen zozketa burutuko da.

### Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga

Usurbilgo Udalak igorri berri ditu Ondasun Higiezinen gaineko Zergari dagozkion ordainagiriak, borondatezko epean ordainduak izan daitezen.



SEI ETXEBIZITZA DIRA ALOKAIRU MODUAN ZOZKETATUKO DIRENAK.

Ordainketarako epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartekoa izango da, helbideratuta dauden agiriak ekainaren 30ean zergadunak adierazitako kontuan kargatuko direlarik.

2010 urteko ordainagiria helbideratu nahi izan ezkero, ekainaren 20a bitartean aukera izango da, agindua Udaleko Zergabilketa sailean emanez.

## Joxe Domingo Aizpuruaren atxiloketa salatzeko mozioa

Joxe Domingo Aizpuruaren atxiloketaren harira, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak mozioa aurkeztuko du datorren asteko udalbatza plenoan. Maiatzaren 25ean asteartea bilduko da udal korporazioa eta bertara joateko deialdia egin du Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak.

Bestetik, igande honetako Sagardo Egunean, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo dute, eguerdiko 13:00ean Mikel Laboa plazan.




SAGARDO EGUNEAN, 13:00EAN ELKARRETARATZEA EGINGO DUTE.

# Santixabelak ekainaren 30etik uztailaren 4ra ospatuko dira

**Hilabete eta erdi eskas baino ez da falta Santixabelak hasteko, baina lanak oso aurreratuak ditu jada Jai Batzordeak. 22 lagun bildu ziren maiatzaren 13an udalbatza aretoan. Besteak beste, definitua dute herriko jaiak noiz hasi eta noiz amaituko diren. Azken orduko aldaketarik ez bada, ekainaren 30etik uztailaren 4ra luzatuko dira Santixabelak.**

Denetariko ekitaldiz osatutako bost egun izango dira, herriko jaiez gozatzeko. Orduorako dena prest izango da. Aipatu moduan, prestaketak oso aurreratuak ditu Jai Batzordeak. Baina orain arteko lana borobiltzeko hirugarren bilera deialdia egin dute. Hitzordua, ekainaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan udalbatza aretoan.



EKAINAREN 10EAN BILDUKO DA BERRIZ ERE JAI BATZORDEA.

## Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketa

Hauek dira Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketara aurkezten denak bete behar dituen baldintzak:

- Usurbildarra izatea.
- Gai librean idaztea.
- Lanak, ekainaren 29a baino lehen Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXIV. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.
- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute. Gutxienez 8 bertso; gehienez 10 bertso.
- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.
- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

-Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera, uztailaren 3an.

# Egitarauaren diseinu lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

**Santixabeletako hitzordu guztien berri, ohi bezala egitarauak emango digu hurrengo asteetan. Hain zuzen, egitaraua aipatuta, ezin ahaztu Udalak festetako hitzorduen inguruko informazioa eskaintzen duen euskarria diseinatzeko lehiaketa antolatu duela; egitarau diseinu lehiaketa. Parte hartzeko baldintzak iazko berak dira, aldatuko dena ordea, lanak aurkezteko epea izango da.**

**Nori zuzendua:** Norbanako edo taldeak aurkez daitezke. Taldea aurkezten bada, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun.

**Lana nola egin:** Egitarauaren testua Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan jaso behar da, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua.

-Jaietako egitaraua euskaraz egingo da eta gaztelaniazko laburpena egitarauaren amaieran jarriko da. Letra tamainaren aldetik, euskarari lehentasuna emango zaio.

-Diseinuak egitarauaren orri guztiak hartu behar ditu bere baitan.

-Formatu artistiko guztiak onartuko dira: pintura, akuarela, collagea, argazkiak, digitala...

-Lanaren neurria librea izango da.

-Lanetan ez da egilearen inolako seinalerik agertuko. Datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea eta telefono-zenbakia) gutunazal itxi batean adieraziko dira. Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean.

**Lanak aurkezteko epea:** ekainaren 7ra arte, Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria Zerbitzuan.

**Epaimahaia:** Santixabeletako Jai Batzordeak osatuko du.

**Saria:** 500 euro irabazlearentzat.

**Oharra:** Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik.

**Argibide gehiago:** 943 371 999.



500 EURO JASOKO DITU LEHIAKETA IRABAZTEN DUEN LANAK.

# Aste honetan ireki da Udajolasen izena emateko epea

**Udajolas 4 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei irekita dago. Gehienezko plaza kopurua 100 umekoa izango da eta, beraz, izena ematen duten lehenbiziko 100ak onartuko dira, ez gehiago. Uztailaren 5ean hasi eta uztailaren 30ean amaituko da Udajolas. Ordutegia hau izango da: goizez, 9:30etik 13:30era. Izen-emate orriak Udarregi ikastolak banatu zituen aurreko astean, baina Udaletxean eta NOAUA!n ere eskura daude inskripzio orrialdeak.**

Izen emateko epea maiatzaren 28an amaituko da, eta NOAUA!ren egoitzan egin behar da. Izen emateko ordutegia, astelehenetik ostiralera, arratsaldez, 17:00-19:00.

Kuota 72 euroko da. Famili ugarien kasuan, 60eur o (familia ugariaren txartela edo familia liburuaren kopia ekarri).

Ordainketa Euskadiko Kutxako (laborala) kontu honetan egin behar da eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi behar dira: 3035 0140 34 1400025811.

NOAUA!ko egoitzan izena ematerakoan, ordainagiriaren kopia eta izen emateko orria eraman behar dira derrigorrez. Aipatutako bi dokumentuak ekarri arte ez da izen ematerik onartuko. Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko inolako kasutan. Informazio gehiago, 943 360 321.



IZEN EMATEA NOAUA!N EGIN BEHAR DA ARRATSALDEZ, 17:00ETATIK 19:00ETARA.

### Aginagako Udako Txokoak

Aginagan, **uztailaren 1ean hasi eta uztailaren 30ean amaituko da**.

**Astelehenetik ostiralera**, goizeko 9:00ak aldera elkartuko dira eta eguerdiko 13:30ak arte ibiliko dira. Hori bai, astean behin, egun osoko irteerak egingo dituzte.

**Hilabeteko kuota 100 euro**koa izango da (astean behin egingo diren irteerak, prezio honen barne).

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu telefono zenbaki hauetara: Manuel (600 484 948).
Dolo (676 163 506).

### Zubietako Udako Txokoak

Txoko hauek 2 urtetik 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. **Uztailean eta abuztuan** Eskola Txikitan elkartuko dira eta ordutegia honako hau izango da: 9:30etik 13:30era.

**Izen-emate orriak** dagoeneko ikastolan edota Barazar Tabernan eskuratu daitezke. Orri horiek bete eta Zubietako udaletxeko buzoian bota beharko dira (Alamandegin).

**Izena emateko azken eguna** maiatzaren 21a izango da. **Kuota,** izena ematen duten haurren kopuruaren arabera zehaztuko da.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: Josune (636 719 301).
Izaskun (618 700 479).

### Kirol Txokoak Aginagan

Aginagako Antxomolantxa elkarteak Kirol Txokoak izeneko ekimena aurkeztu berri du.

Larunbatero, kirola egingo dute begirale edo hezitzaile batekin.

5 urtetik gorako haur eta gaztetxoei dago zuzendua eta lehen saioa larunbat honetan izango da, goizeko 11:30etik 13:30era. Informazio gehiago: 650 692 458.

## Urteurrena prestatzen hasi dira Zumartekoak

**Zumarte Musika Eskola albiste iturri izan da azken asteotan. Ekainaren 12an larunbata aldiz, urteurrena ospatuko dute eta hasi dira egun osoko egitaraua izango dena prestatzen.**

### Bergarako lehiaketan

Apirilaren 25ean Bergaran Musika Modernoko II. Lehiaketa ospatu zen eta bertan Zumarteko "Urrezko muskerrak" eta Zumarte Folk Taldeak hartu zuten parte. Nahiz eta saririk ez lortu oso gustura itzuli ziren egindako lanarekin.

### Disko baten grabazioa

25. urteurreneko ekitaldien harira, Zumarteko talde desberdinak (3 abesbatzak, txaranga, trikitixa-pandero taldeak, ska taldeak, folk taldeak, helduen talde instrumentalak) disko bat grabatzen aritu dira, San Esteban elizan eta Sutegin. “Esperientzia oso aberasgarria izan da eta ikasle-irakasleak gogor aritu dira lanean. CDa maiatza bukaerarako prest egotea espero dugu”, adierazi digute Zumartekoek.

### Argazki bilduma

Ekainaren 12an 25. urteurrena ospatuko du Zumartek. Urte desberdinetan Zumartetik pasa diren ikasleek eskainitako kontzertu desberdinen argazki bilduma ikusgai jarriko da. Arazorik ez izateko, "bilduma horretan norbaitek bere argazkiren bat ateratzeko edozein eragozpen badu, mesedez maiatzaren 20a baino lehen gurekin harremanetan jartzeko eskaera" egin dute Musika Eskolatik.

### Ekainaren 12an, urteurren festa

Urteurrena ospatzeko egitarau ederra ari dira prestatzen: goizetik kalejira, bazkaria Mahaspildegin, gauez emanaldi mundiala kiroldegian... Xehetasun gehiago emango ditugu aurrerago.



# Udalak eta Hurbilagok poltsa berrerabilgarriak banatuko dituzte

**Hurbilagok eta Udalak ingurumenaren alorreko sentsibilizazio lanean beste aurrerapauso bat eman nahi dute, beste urrats bat; +1 ikurra daramaten erosketa poltsak banatuko dituzte, bat etxebizitza bakoitzeko. Saltokietan ere erosi ahal izango dira poltsa hauek. Euren berezitasuna, behin baino gehiagotan erabil daitezkeela da, berrerabilgarriak direla alegia. Besteak beste, Aliprox saltokian nabarituko dute aldea, bertako arduradun Begoña Torresek dioenez.**

**NOAUA! Poltsa berrerabilgarria zer den, nola definituko zenuke?**

**Begoña Torres.** Behin baino gehiagotan erabil daitekeen poltsa da. Ez da etxera ailegatu, eta ezertarako erabiltzen ez dena. Erosketak egiteko ekar dezakezu, praktikoa da. Berrerabili daiteke, ingurumena kaltetzen duten plastikozko poltsak saihesteko. Herriak birziklapenari dagokionean, hartu duen bidean aurrera joatea litzateke.

**N. Ohiturak aldaketa bat baino ez da izango?**

**B.T.** Etorkizuna beste bide batetik doala pentsatu behar dugu. Pentsaera aldatu behar da. Erosketak egitera etortzean ez da espero behar, hemen beti plastikozko poltsak egongo direnik. Gakoa, etxean bakoitzak lan pertsonal pixka bat egitean legoke, poltsa berrerabilgarria hartu behar dugula gogoratzean. Beste edozer gauzarekin bezala, ohitzea da kontua. Birziklatzea bezala; hasieran kosta daiteke, baina gerora sinergia hutsa da.

**N. Zuen dendatik, etorkizunean plastikozko poltsak desagertuko direla uste duzu?**

**B. T.** Nik uste baietz. Nahi izan edo ez, desagertu beharra dute. Baina pausoak pixkanaka eman behar dira. Poltsa plastikozkoekin hasi, eta hemen edozein lekutara begiratuta, plastikoa dago. Bakoitzak etxean saiatu beharko du. Azkenean, plastikoa errefusatzen amaituko dugu, jokabide aldaketa bat egongo da. Prozesu natural bat izango dela uste dut. Garai batera, lehengora itzuliko gara. Baina pixkanaka joan behar da.

**BERRERABILTZEKO OHITURA**

"Ez da kontu berria. Duela urte askotatik, Europako herrialde askok egiten dute"

**N. Birziklatu eta berrerabiltzea ez baita kontu berria, ezta?**

**B.T.** Plastikoa, kartoia… Jendea ez da jabetzen, produktu askok duten material guztiaz. Hemen, kartoi pila bat sortzen dugu, hau denda txiki bat izanda. Pentsa, saltoki gune handietan, hondakin kopurua biderkatzen da. Langile baino gaztetxo moduan oroitzen dut garai hura. Lehengo garaia, guztia erabili eta botatzeko ohiturak ordezkatu zuen; erosi, kontsumitu eta botatzeak hain zuzen. Horregatik sortu da hainbeste tona zaborra, azkenerako beharrezkoak ez direnak. Orain, garai batera bueltatzen ari gara. Batzuk produktuak bildukin gutxiagorekin ekartzen saiatzen dira. Botiletako kaskoekin egiten zen bezala, dirua itzultzen da. Garai batean askok oroituko dute, hondartzan kasko bila nola aritzen ginen, pezeta bat jasotzeko. Usadio zaharretara bueltatzea da kontua. Berrerabil daitekeen guztiarekin, aurrezten ari zara eta ez zara jada badiren baliabideak gastatzen ari. Ez da kontu berria. Duela urte askotatik, Europako herrialde askok egiten dute.



Aliprox dendakoen ustez, oso praktikoa da poltsa berrerabilgarria.

## Larrialdi guneetara sartzeko giltza beharko da, astelehenetik aurrera

Landa eremuan bizi eta hondakin zatiak uzteko larrialdi guneak baliatzen dituzten herritarren artean giltzak banatuko ditu Udalak. Giltzak doakoak dira eta Sutegiko Atez Ateko Informazio bulegoan eskura daitezke. Maiatzaren 24an abiatuko den sistema berri honekin, izenak dioen moduan, guneok behar duten herritarrek soilik baliatzea ahalbidetu nahi du Udalak. Aurrerantzean beraz, giltza duten herritarrek baino ezingo dute sartu Atallun eta Aginagan kokatzen diren larrialdi guneotan. Argibide gehiago jaso nahi dituenak egunotan, informatzaile bat egongo da aipatu guneotan.

Atez ateko
zalantzak argitzen

Nola atera pardelak?

Egunero atera daitezke pardelak, baina kuboen gainean utzi ordez, poltsen barruan utzi behar dira.

Bidali zure galdera helbide honetara:
atezate@usurbil.net
Galde-erantzun guztiak webgunean:
www.usurbil.net/atezate

Usurbilgo Udala
Usurbil osasuna atez ate

# TEATReruak Antzerki Taldeak
## "Hau Komeria!" aurkeztuko du larunbatean Sutegin

**Ander Izeta, Leire Iturrioz eta Jon Etxabe herriko antzezle hirukotea, orain TEATReruak Antzerki Taldea, obra berria prestatzen aritu da azken hilabeteotan. Umoretik misteriora jauzi egin nahi dute gazteek oraingoan. Ailegatu da estreinaldi eguna; euren azken lana, "Hau Komeria!" Donostiako Antzoki Zaharrean aurre estreinatu ostean, Sutegin estreinatuko dute larunbat arratsaldean. Oraingoan, beste gazte batek, Beñat Arrutik laguntzaile gisa jardungo du. Argiztapenaz arduratuko da.**



LAN BERRIA EZ DA KOMEDIA ESTILOKOA IZANGO...

**NOAUA! Antzezlan berria Donostian aurre estreinatu zenuten asteburuan. Zer moduz etxetik kanpo?**

**Ander Izeta.** Oso ondo hartu gintuzten, oso tratu ona jaso genuen, bertako langileen partetik. Jende asko azaldu ez bazen ere gerturatu zirenek zoriondu gintuzten, hori bai, barregarriagoa espero omen zuten, ea Usurbilgoei zer iruditzen zaien!! Antzokikoen partetik laguntza handia eman digute.

**Leire Iturrioz.** Urduritasun puntu bat ere bagenuen. Usurbilen etxean sentitzen gara. Ez genekien jendeak nola erreakzionatuko zuen Donostian, bertan eskaintzen genuen lehen emanaldia baitzen.

**N. Estreinaldia, larunbatean Sutegin. Zer da eskainiko duzuena?**

**L. I.** "SoOofing" antzezlanarekin ezin da alderatu. Hau ez da komedia.

**Jon Etxabe.** "SoOofing"-ekin ere esan genuen ez zela barre egiteko antzezlana, baina jendeak barre asko egin zuen azkenean. Oraingoan, uste dugu asmatuko dugula. Betetzen saiatuko gara leku bat, une bat eta gertaera bat.

**A. I.** Ez dugu askorik aurreratzerik nahi. Jendeari intriga sortu nahi diogu. Etxe bateko gela batean gertatuko da, jendea dago bertan. Aurreko emanaldiarekin barrea, baina oraingoan izua sortu nahi dugu. Ia lortzen dugun, ez baita erraza.

**N. Taldeak izen, logotipo, blog eta kartel berria estreinatzeko ere baliatu duzue azken antzezlan hau. Azken hilabeteotan egindako lanaren isla da ezta?**

**L. I.** Herriari zabaldu nahi diogu, antzerki talde berria dagoela. "SoOofing"ekin alderatuta, kasu honetan bakoitzak bere pertsonaia sakondu du. "SoOofing"-en pertsonaia desberdinak ziren, hemen pertsonaia bakarra da. Gehiago kostatzen da ordubetez pertsonaia berean sartua egotea.

**A. I.** Azarotik gabiltza lanean, obra mimatzen saiatu gara. Emaitza ona izango dela espero dugu. Kartelari misterio puntua eman nahi izan diogu. Gela bat ageri da bertan eta hirurok beldur itxurarekin. Jendeak zerri buruzko emanaldia ikustera doan galdetzea nahi dugu. Eta antzezlan amaieran, norberak bere buruari galde diezaioke zer egingo lukeen antzezlanekoa berari gertatuko balitzaio.

**J. E.** Argi dago, azken bi antzezlanetan gauza errealistak egiten saiatu gara. Pertsonaiak aztertu ditugu. Gauzak ondo prestatu nahi ditugu.

**N. Blogaren bidez, emanaldiak eskaintzeko aukera gehiago sortu zaizkizue?**

**L. I.** Oraindik jende gutxik daki bloga dugunik. Badakigu, jendea sartzen dela bertan. Sartzen bada, hurrengo obraren sinopsia ikus dezake. Helbidea honakoa da: teatreruak.blogspot.com.

**A. I.** Nahi duenak deitu dezala, oholtza polit bat duenak joango gara. Dirua ez da inoiz arazoa izango. Gu oso gustura joango ginateke. Bi emanaldi hauen ostean, irailetik aurrera deitzen diguten tokietara, ahal badugu joango gara.

**N. Iaz bezala, emanaldia ere ikasleen bidaia laguntzeko izango da?**

**J. E.** Iaz Anderri eta bere ikaskideei laguntzeko izan zen eta aurten guri. Animatu, DBH 4ko ikasleoi ikasturte amaierako bidaiarekin laguntzeko da, eta merezi dugula uste dut.

**N. Lagun eta ikaskideak ez al dira zuekin antzeztera animatzen?**

**A. I.** Gerturatzen badira, laster sartuko ditugu taldean. Hau ez da hiruko talde itxi bat.

**L .I.** Talde irekia da. Nahi duena etor daiteke, gogoa baino ez da behar.

### DBH 4-ko ikasleen aldeko saioa izango da

**Antzezlana:** "Hau Komeria!".
**Tokia:** Sutegiko auditorioa.
**Ordua:** 20:00.
**Nori zuzendua:** 12 urtetik gorakoentzat.
**Sarrerak:** aldez aurretik 3,5 eurotan Udarregi ikastolan, Kiroldegian eta Bordatxon. Egunean bertan, 5 euroren truke. Bildutako dirua DBH 4-ko ikasleen ikas bidaiarako izango da.
**Antolatzaileak:** TEATReruak Antzerki Taldea eta Udarregi Ikastolako DBH-4ko ikasleak.

# Asteburu honetan hasiko da
# Usurbil Cup Txapelketa

**35 taldek izena eman dute asteburuan hasiko den Usurbil Cup Usurbil Futbol Taldekoek antolatutako kirol ekimenean. Lehen jardunaldi honetarako, 17 partida jokatuko dituzte herriko maila desberdinetako 321 neska-mutilek. Txapelketa ekaina amaierara arte luzatuko da.**


ASTEBURUAN JOKATUKO DA USURBIL CUP-EN LEHEN JARDUNALDIA.

Usurbil FT antolakuntza lanetara itzulita, ekingo diote Usurbil Cup txapelketari asteburu honetan. Lehen jardunaldia ostiral arratsalde eta larunbat egun osoan zehar jokatuko dute, antolatzaileek apirilean egindako deialdian izena eman zuten 35 taldeek. Guztira, herriko minibenjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako 321 neska-mutil arituko dira futbolean asteburuan hasi eta ekaina bukaerara arte luzatuko den kirol ekimenean. Hain zuzen, finalak ekainaren 26an jokatuko direla iragarri dute Usurbil FTtik, maila bakoitzeko lehen lau sailkatuek finalerdiak jokatu ostean. Guztira, hamabi nesken talde eta hiruzpalau misto osatu dira, gainerakoak mutilenak.

Partida bat baino gehiago ordu berean jokatu beharko dituzte. Horregatik, antolatzaileek jokaleku bat baino gehiago baliatuko dituzte txapelketarako, hiru gune nagusiki; frontoia, Oiardo Kiroldegi kanpoko zelaia eta Udarregi ikastolako patioa. Jardunaldi gehienak, ostiral arratsalde eta larunbat egun osoan zehar jokatuko dira, nahiz bitan edo jardunaldiak astean zehar ere jokatuko diren, ekainean gaztetxoek arratsaldez ikastolarik ez dutela izango kontuan izanda.

### Lehia sanoa bultzatu nahi

Pasa den astekarirako NOAUA!ri igorritako gutunean, Usurbil Futbol Taldetik ziotenez, “pozgarria da hainbeste haur ilusioz, gogoz eta pasioz frontoian lehiatzen ikustea”. Baina hastear den txapelketan argi utzi nahi dutenez, “ez ditugu onartuko entrenatzaileen jarrera eta erabaki baztertzaileak, gehiegizko tentsio momentuak eta horrelako dinamikak”. Horregatik halako egoerak saihesteko elkarlanera dei egiten zieten, entrenatzaile edotà gaztetxoen gurasoei ere. “Parte hartzera animatu nahi ditugu gazte, guraso eta entrenatzaileak baina asmoek, ilusio faltsuek ez ditzatela zapuztu lehiaketa honek sortzen dituen eragin onak, pozak eta neurri gabeko irribarreak!”. Txapelketak dituen helburu hezitzaileak bultzatu nahi dituzte antolatzaileek; herrigintza, talde lanaren lanketa eta garapen pertsonala.

### Lehen Jardunaldia

MAIATZAK 21, OSTIRALA
**Infantilak, Oiardo kiroldegian:**
19:30 Pitifituplautikoak-Kongitos.
20:30 Florentniños-Nik ez!

**Kadeteak, Oiardo kiroldegian:**
17:00 Inprimittu-Zendoia.
17:50 Kunprittu-Pro.
18:40 Team Ainhoa Sanchez-Saizar.

MAIATZAK 22, LARUNBATA
**Minibenjaminak, Oiardo kiroldegian:**
10:00 Bruño Mariskoak-
-Josue Igeltseritza.
10:50 Coidek-Araeta Jatetxea.
11:40 Arantxa akademia-Indargorri.

**Benjaminak, Oiardo kiroldegian:**
16:00 Blai-Lizardi.
16:50 Intza Ileapaindegia-Laurok.
17:40 Zendoia-Kaxkamelak.
18:30 Bordatxo Taldea-
-Ines Ileapaindegia.

**Alebinak, Udarregi ikastolan:**
16:00 Txiriboga-Keler Pauma.
16:50 Elexpe Ileapaindegia-
-Saizar Sagardotegia.
17:40 Dorleta-Ardi Beltza.
18:30 Borobiltxo-Aialde Berri.
19:20 Bordatxo-Pasaian!

**Antolatzailea:** Usurbil FT.

## Judoko nesken taldea, Europako Txapelketara

Uztailaren 24an Orleansen ospatuko den kluben arteko Europako Txapelketarako sailkatu da nesken taldea. Asteburuan Madrilen burutu zen Liga Nazionaleko azken jardunaldian, jokatu zituzten hiru neurketei esker lortu dute txartela. Taldearen helburua, lehen bi postuetan sailkatzea zen eta lortu dute, txapeldunorde amaitu baitute. Nesken taldea kide hauek osatzen dute: Oiana Blancok, Aiora Arrillagak, Nerea Sanzek, Andrea Arruabarrenak, Maialen Zubeldiak, Maier Uriartek, Ane Cazorlak, Nerea Arrutik, Jessica Romerok eta Mari Jose Sardonek.


LIGAN BIGARREN IZAN DIRA. IRUDIAN, PODIUMEAN DIRA USURBIL JUDO TALDEKO KIDEAK.

## Pala Txapelketa hasi da

**Lehen jardunaldiko emaitzak**
Imanol Esnaola-Haritz Zubiaur 25
Enrike Huizi-Unai Lataillade 24

Xabier Errasti-Manuel Galarraga 25
Unai Loidi-Eneko Arregi 21

Esteban Roteta-Gorka Astiazaran 8
Leko-Haritz Harreguy 25

Mikel Ibarreta-Jon Olaizola 25
Jon Larrañaga-Juanjo Lertxundi 11

**Maiatzak 22 larunbata Aginagan**
Imanol Esnaola-Haritz Zubiaur
Eneko Harreguy-Iban Maritxalar

Igor Alkorta-Josu Errekondo
Josu Arruti-Jokin Zubiaur

Jon Arruti-Xabier Murua
Unai Loidi-Eneko Arregi

# Zuzeneko disko batean jaso dute Sutegin eskaini zuten kantaldia

**Azken urte hauetan, toki askotan aritu dira kantuan Jean Bordaxar, Jean Pierre Luro, Jean Noël Pinque eta Robert Larrandaburu. *A cappella* moduan (kantuan, musika instrumentuen laguntzik gabe), atzoko eta gaurko zuberotar kantuak abesten aritu dira herriz herri. Iazko abenduan Sutegin eskaini zuten saioa, ordea, errejistratua izan zen eta aste honetan argitaratua izan da Elkar zigiluaren eskutik.**



ZUBEROAKO ABESTIAK DIRA DISKO HONETAN BILDU DIRENAK.

"Lau boz berezi eta eder, Zuberoa are gehiago maitatzeko. A cappella kantatzen dute, Pirinioetako kantu tradizionalaren modu egiazkoenean", hala dio Elkar zigiluaren promozio orrialdeak.

Iaz, abenduaren 12an Usurbilgo Sutegin aritu ziren kantuan. Emanaldi hori bera da aste honetan Elkar zigiluak plazaratuko duena. Irudian duzue aste honetan Baionan aurkeztuko duten diskoaren azala.

NOAUA!ko webgunean kantu bat jarri dugu entzungai aste honetan, "Zohardi batez" izeneko abestia.

### Nafartarrak-en ekimenez

Nafartarrak taldeak Zuberoako ikastolak laguntzeko kanpaina jarri zuen martxan iazko abenduan. Gabonetako otarren bidez, diru bilketa egiten aritu ziren.

Zuberoako ikastolen alde, otar salmentaz aparte, Jean Bordaxar, Jean-Noël Pinque, Jean-Pierre Luro eta Robert Larrandabururen kantaldia antolatu zuten. Ba hain zuzen, iazko abenduaren 12an egindako saio hura da orain Elkarrek plazaratu duen diskoan jasoa izan dena.

## Zubietako Kultur Astea, azken txanpan

Eskola Txikiko gurasoek antolatuta, astelehenetik martxan da Kultur Astea. Ostegun honetan, maiatzak 20, ikastola orduan ipuin kontakizuna izango da. 17:00etan, aldiz, elikadura eta homeopatiari buruzko hitzaldia eta, eguraldiaren arabera, film baten proiekzioa.

Ostiralean, maiatzak 21, 17:00etatik aurrera, joko kooperatiboak, txokolatada, buruhandiak…

Eta larunbatean, maiatzak 22, Zubietatik Santueneraino txirringaz 11:00etan abiatuta. Santueneko parkean hamaiketakoa egingo dute eta 14:00etan bazkaria Araetan.

## Ostiral honetan, Aurora Parraren kontzertua Sutegin

Aurora Parra kantari kubatarra Usurbilen bizi da duela urte batzuetatik hona. Sopranoa da eta ostiral honetan Sutegin eskainiko duen kantaldian, pianojole baten laguntza izango du.

Musika klasikora gerturatuko gaitu italiar, frantses eta alemaniar operako ariak eskainiko dituelako. Baina kubatar zein espainiar zarzuela estiloko hainbat abesti ere taularatuko ditu. Saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Sarrera 2 euro, egunean bertan salgai.

LURRALDEBUS

ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

| Irteera Usurbil | Irteera Astigarraga |
|---|---|
| ASTELEHEN-LARUNBATERA | ASTELEHEN-LARUNBATERA |
| 07:15- 7:45- 08:15- 08:45 | 07:00- 7:30- 08:00- 08:30 |
| 09:15- 10:15- 11:15- 12:15 | 09:00- 09:30- 10:30- 11:30 |
| 12:45- 13:15- 13:45- 14:15 | 12:30- 13:00- 13:30- 14:00 |
| 14:45- 15:15- 16:15- 17:15 | 14:30- 15:00- 15:30- 16:30 |
| 18:15- 18:45- 19:15- 19:45 | 17:30- 18:30- 19:00- 19:30 |
| 20:15- 20:45- 21:15- 21:45 | 20:00- 20:30- 21:00- 21:30 |
| 22:15 | 22:00 |
| IGANDE-JAIEGUNETAN | IGANDE-JAIEGUNETAN |
| 15:15- 16:15- 17:15- 18:15 | 15:00- 16:00- 17:00-18:00 |
| 19:15- 20:15- 21:15- 22:15 | 19:00- 20:00-21:00- 22:00 |

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA
Usurbil → Urnieta

| USURBIL | SANTUENEA | ZUBIETA | LASARTE | URNIETA |
|---|---|---|---|---|
| 07:15 | 07:20 | 07:25 | 07:30 | 07:45 |
| 08:15 | 08:20 | 08:25 | 08:30 | |
| 09:15 | 09:20 | 09:25 | 09:30 | 09:45 |
| 12:30 | 12:35 | 12:40 | 12:45 | 13:00 |
| 13:30 | 13:35 | 13:40 | 13:45 | |
| 14:30 | 14:35 | 14:40 | 14:45 | 15:00 |
| 18:30 | 18:35 | 18:40 | 18:45 | 19:00 |
| 19:30 | 19:35 | 19:40 | 19:45 | |
| 20:30 | 20:35 | 20:40 | 20:45 | 21:00 |

ASTELEHENETIK-OSTIRALERA
Urnieta → Usurbil

| URNIETA | LASARTE | ZUBIETA | SANTUENEA | USURBIL |
|---|---|---|---|---|
| | 07:00 | 07:05 | 07:10 | 07:15 |
| 07:45 | 08:00 | 08:05 | 08:10 | 08:15 |
| | 09:00 | 09:05 | 09:10 | 09:15 |
| 09:45 | 10:00 | | | |
| | 12:15 | 12:20 | 12:25 | 12:30 |
| 13:00 | 13:15 | 13:20 | 13:25 | 13:30 |
| | 14:15 | 14:20 | 14:25 | 14:30 |
| 15:00 | 15:15 | | | |
| | 18:15 | 18:20 | 18:25 | 18:30 |
| 19:00 | 19:15 | 19:20 | 19:25 | 19:30 |
| | 20:15 | 20:20 | 20:25 | 20:30 |
| 21:00 | 21:15 | | | |

TSST autobusak
ZUBIETA·LASARTE

LANEGUNETAN
Zubieta-Lasarte 7:25 / 08:25 / 09:25 / 12:40 / 13:40 / 14:40/ 18:40 / 19:40 / 20:40
Lasarte-Zubieta 7:00 / 08:00 / 09:00 / 12:15 / 13:15/ 14:15/ 18:15 / 19:15 / 20:15

LARUNBATETAN (OBRA-LANAK AMAITZEAN)
Zubieta-Lasarte 08:15 /12:45 / 15:05 / 21:35
Lasarte - Zubieta 08:10 /12:40 / 15:00 / 21:30

JAI EGUNETAN (OBRA-LANAK AMAITZEAN)
Zubieta-Lasarte 11:20 / 13: 30 / 15:30 / 21: 35
Lasarte -Zubieta 11:15 / 13: 25 / 15:25 / 21: 30

www.tsst.info 943 36 17 41

BUS-TAXI
Astelehenetik Ostiralera
630 64 35 96*

| | GELTOKIAK | ORDUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Usurbil kaskoa | 7:30 | 10:30 | 13:00 | 15:30 | 19:00 |
| 2 | Kalezar | 7:32 | 10:32 | 13:02 | 15:32 | 19:02 |
| 3 | Iartza | 7:35 | 10:35 | 13:05 | 15:35 | 19:05 |
| 4 | Ibarrola | 7:38 | 10:38 | 13:08 | 15:38 | 19:08 |
| 5 | Arratzain | 7:42 | 10:42 | 13:12 | 15:42 | 19:12 |
| 6 | Txantxon | 7:45 | 10:45 | 13:15 | 15:45 | 19:15 |
| 7 | Urdaira | 7:48 | 10:48 | 13:18 | 15:48 | 19:18 |
| 8 | Aginaga | 7:55 | 10:55 | 13:25 | 15:55 | 19:25 |
| 9 | Txokoalde | 8:00 | 11:00 | 13:30 | 16:00 | 19:30 |
| 10 | Urdaiaga | 8:03 | 11:03 | 13:33 | 16:03 | 19:33 |
| 11 | Santuenea | 8:03 | 11:03 | 13:35 | 16:03 | 19:35 |
| 12 | Usurbil kaskoa | 8:05 | 11:05 | 13:38 | 16:05 | 19:38 |
| 13 | Santuenea | 8:10 | 11:10 | 13:40 | 16:10 | 19:40 |
| 14 | Amiri | 8:12 | 11:12 | 13:42 | 16:12 | 19:42 |
| 15 | Etxetxo ingurua | 8:14 | 11:14 | 13:44 | 16:14 | 19:44 |
| 16 | Alkortenea | 8:17 | 11:17 | 13:47 | 16:17 | 19:47 |
| 17 | Zubieta | 8:22 | 11:22 | 13:52 | 16:22 | 19:52 |
| 18 | Txikierdi | 8:27 | 11:27 | 13:57 | 16:27 | 19:57 |
| 19 | Usurbil kaskoa | 8:30 | 11:30 | 14:00 | 16:30 | 20:00 |

## Agenda !!

**Maiatzak 20 osteguna**
Txetxeniako egoera hizpide Sutegin, arratsaldeko 19:30ean. Hizlaria: Urtzi Urrutikoetxea. Antolatzailea: Aitzaga.

**Maiatzak 21 ostirala**
Aurora Parraren kontzertua 19:00etan Sutegin. Sarrera: 2 euro.

**Maiatzak 22 larunbata**
- Ate Irekiak Usurbilgo Lanbide Eskolan, goizeko 11:00etan.
“Hau komeria!” antzerkia 20:00etan Sutegin. Sarrera 3,5 aldez aurretik (ikastolan salgai). Egunean bertan, 5 euro.

**Maiatzak 23 igandea**
XXIX. Sagardo Eguna.

### Goardiako farmaziak

**Maiatzak 20, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Maiatzak 21, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Maiatzak 22, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Maiatzak 23, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Maiatzak 24, astelehena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Maiatzak 25, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 26, asteazkena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 27, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 28, ostirala**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Maiatzak 29, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 30, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
*Chucla farmazia (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Txetxeniak bizi duen egoerari buruzko hitzaldia Sutegin

**Errusiarekin duen gatazka gordina urte asko irauten ari bada ere, apenas entzuten da ezer, besteren artean, agintari errusiarrak kazetari eta komunikabideei herrialdea guztiz itxi dielako aspalditik. Handik etorri berria da Urtzi Urrutikoetxea kazetaria. Aitzagaren eskutik hango egoeraren berri emango digu Sutegin eskainiko duen hitzaldian.**



KAUKASO ALDEKO EGOERAZ HITZ EGINGO DA OSTEGUN HONETAN SUTEGIN.

Soilik dozenaka hildako eragiten dituzten triskantza handiak gertatzen direnean izaten da Txetxeniaren berri, eta betiere, era oso partzialean.

Gatazkaren nondik-norakoak eta egungo egoera ezagutarazteko, Urtzi Urruikoetxea kazetaria izango da gure artean Kaukasotik itzuli berria.

Maiatzaren 20an osteguna, 19.30etik 21.00etara, Sutegin.

### Mariskada bat Maria Dolores Zalduarentzat

Eskubaloi elkartekoen azken errifa zozketan mariskada bat zegoen jokoan. Maria Dolores Zaldua Urdanpilletari egokitu zaio, 2.144 zenbakidun errifaren jabeari. Ohi bezala, eskubaloi elkartekoek zozketan parte hartzen duten guztiak eskertu nahi dituzte.



ESKUBALOI TALDEAK EGIN DUEN AZKEN ZOZKETAN, SARIA MARIA DOLORES ZALDUARENTZAT IZAN DA.

### Usurbilgo Pilota Txapelketako partidak

**MAIATZAK 22 LARUNBATA**
**Aginagan, goizeko 10:30ean, Jubenilak**
Okeranza-Otegi / Mendizabal-Galarraga
(Antiguo) (Usurbil)

Urretabizkaia-Bereziartu /Axpe-F. Larrinoa
(Lazkao) (Legutio)

**Nagusiak**
**Azken zortzirenak**
Lizaso - Erreka / Goikoetxea - Mendia
(Billabona) (Beasain)

**MAIATZAK 23 IGANDEA**
**Aginagan goizeko 10:30ean, Jubenilak**
**Azken zortzirenak**
Gallurralde - Jaka / Taberna - Beola
(Amezketa) (Oiartzun)

Iribarren - Malanz / Landa - Labaka
(Burlata) (Bidegoien)

**Nagusiak**
Jauregi - Berroeta / Sukia - Biain
(Gasteiz) (Bidegoien)









## ETXEBIZITZA

- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
-Atxegalden amueblatutako pisu bat alokatzen da. 3 logela, 2 komun, sala, sukaldea, 3 balkoi eta trasteroa. Eguzkitsua eta igogailuarekin. 658756344.
- Etxe bat alokatzen da Santuenean. 943 366 039.
- Usurbilgo Kaxkoan berritutako eta amueblatutako etxe bat alokatzen da. 3 logela, sukaldea, komuna, trasteroa eta bi terraza ditu. Eguzkitsua. 616064059
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu.Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoa garaje itxi bat alokatzen da 80?tan, Interesatuak deitu 667715075 telefonora.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 6471202 53.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237..
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

### Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziduna. 606 800 837.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Bideo-muntaiak egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalera x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.




**Zorionak Olatz!**
Duela egun batzuk ikusi zaitugu Noauan, wapa-wapa eta indartsu, gainera! Zure urtebetetzerako pastelik bidali ezin dugunez, hona dozenaka muxu opari moduan. Eutsi goiari!



**Zorionak Ekhine!**
Maiatzaren 18an 9 urte egingo dituzu. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Xubanen partez.



**Zorionak Adrian!** Maiatzaren 24an egingo dituzu 2 urte. Muxu handi bat eta txokolatezko muxua familia guztiaren partez!



**Zorionak Enara!** maiatzaren 24an egingo duzu zure lehen urtebetetzea eta Oihan, Janire eta familia guztiaren partez zorionak eta muxu potolo bat bidaltzen dizugu.



**Zorionak wapppezzimoo!**
Maiatzaren 22an beteko dituzun 4 urte handiengatik zorionak! Ondo pasa eta muxu mordo bat morenazo!

## HILDAKOAK



**Maria Pilar Arregi Ugartemendia**
Maiatzaren 13an hil zen
70 urterekin



**Rosalia Arrastio Cia**
Maiatzaren 11n hil zen
76 urterekin

# JOSEBA TAPIA

# eta tira eta tunba




Noaua!! www.noaua.com

## maiatzak 28, OSTIRALA
## Sutegin 22:30h

zakurraren biolina

***Sarrerak:*** **Aldez aurretik 6€ (Txiribogan eta Noaua!n) Takilan 8€.**
**Noaua!ko bazkideek 5€tan Noaua!Ko egoitzan.**

# TXOTX!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68


N!!
gehigarri berezia
XXIX. Sagardo eguna
maiatzak 23
10


Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu
Ondo pasa Sagardo egunean!
INTZA
WELLA ILEAPAINDEGIA
PROFESSIONALS
Equerditan irekia! Nagusia 8, 943 36 36 41


Aguirrezabal Estankoa
Ondo pasa Sagardo egunean
kale Nagusia, 27.
✆ 943 361 110


Aizpurua Okindegia
Telesforo ardoak
Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!
Kale Nagusia, 25 • ✆ 943 36 12 20

# MILA BITXIKERIA SAGARDOGINTZAREN INGURUAN

**1457. urteko Gipuzkoako ordenantzaren arabera, sagardun bost sagarrondo moztu edo suntsitzen zituenari heriotz zigorra ezartzen zitzaion; berdin Bizkaian. Betidanik, gure kulturaren parte garrantzitsu izan den seinale.**

**Euskaldunon artean, sagardoaren kulturak garrantzia handia izan du. Eta ez soilik gipuzkoarron artean. Foru, ordenantza eta legeetan barrena, hainbat bitxikeria dago. Horietako batzuk aurkitu ditugu www.argia.com/sagardoa webgunean.**



"Sagarrondoa, sagarra eta sagardoari buruzko legeria aberatsa da, liburu zaharretan antzeman daitekeenez. Dokumentu guzti horietatik sagardoak garai batean izan zuen garrantzia ondorioztatu dezakegu.

**Lehen arauak, Lapurdin**

Antzina, foruek sagarrondoa babesten zuten. Babes hau ez zen zuhaitzetara soilik mugatzen, baizik sagarrondoa zegoen lurrari edo zelaiari ere zabaltzen zitzaion babesa. Foruak isunak eta zigorrak ezartzen zizkien sagastietan kalteak eragiten zituztenei.

Sagardoaren babesa arduratsua eta zehatza izatera iritsi zen: sagarrondoak landatzeko lurraren jabeak lurralde bakoitzeko ordenantzak errespetatu behar zituen; esate baterako, zuhaitzen arteko tarte minimo bat mantenduz eta abar.

Sagarrondoaren babeserako ezagutzen diren lehendabiziko arau idatziak Lapurdikoak dira. Ricardo Lehoibihotzak 1189. urtean idatzi zituen. Arauon arabera edozein animaliak debekatuta zuen sagastian sartzea eta sagarrak lapurtzen harrapatzen zuten gaizkilea zigortzea agintzen zuen. Hamaika adibide aurki dezakegu honen inguruan.

1245. urteko Nafarroako dokumentu batean agertzen denez Kanbo eta Uztaritzeko nekazariek Teobaldo I. Nafarroako erregeari protesta egiten zioten sagarren eta kupelen lapurreta zela eta.

**Bizia, jokoan**

1457. urteko Gipuzkoako ordenantzaren arabera, sagardun bost sagarrondo moztu edo suntsitzen zituenari heriotz zigorra ezartzen zitzaion; berdin Bizkaian.

**Ahuntzak sagastietan...**

1587. urtean Hernani herriari emandako ordenantzaren arabera, ahuntzen bat sagastian sartuz gero, bere jabeak 24 marabedi ordaindu behar zituen, antxumea izanez gero 12 marabedi. Zigorra bikoiztu egiten zen hori gauez gertatzen bazen (...)".

*Jon Garmendiaren hitzak*

# SAGARDOA, URTE OSOAN EDATEKO MODUKOA

**Txotx garaiak iraun duen bitartean, sagardo asko kupelatik zuzenean edan da. Baina aurrerantzean, gehiago izango dira sagardoa botilatik edango dutenak. Hona hemen botilako sagardoaren kontsumorako hainbat gomendio.**



SAGARDOA EDARI FRESKAGARRIA DA, ALKOHOL GRADUAZIO BAXUKOA, URTE OSOAN KONTSUMITZEKO EGOKIA.

### Botilaratu eta urtebeteko epean

Sagardo bakoitzak dituen ezaugarrien arabera, kontsumitzeko garai egokiago bat izango du, normalean botilaratu eta urtebeteko epean.

### Behin irekita, tapoia jarri

Behin botila irekita denbora tarte laburrean kontsumitzea komeni da, eta kortxoa edo tapoia jarrita edukitzea, irekita gordez gero propietateak galduko baititu.

### Fresko edan behar da

Sagardoa 10-13° C gradu artean kontsumitzea gomendatzen da, freskoa.

### Ireki aurretik, botila astindu

Sagardoa iragazi edo filtratu gabeko edaria denez, sedimentuak ondoratzen joango dira denborarekin. Ireki aurretik botila buruz behera jarri eta astindu egingo dugu, sagardoa homogeneizatzeko.

### Sagardoa hautsi

Edalontzitik 20-30 zentimetrora zerbitzatu, sagardoa hautsi eta txinparta ateratzeko.

### Edalontzi zabalean

Sagardoa edateko edalontzia zabala eta kristal finekoa izatea gomendatzen da.

### Trago batean

Trago batean edango den sagardo kopurua zerbitzatu aldiro.

### Freskagarria, alkohol gutxikoa

Edari freskagarria da, alkohol graduazio baxukoa, urte osoan kontsumitzeko egokia.

### Janari denekin ondo egokitzen da

Edozein janari motarekin ezkontzen da ondo.

### Toki fresko eta ilunean gorde

Toki fresko eta ilunean gordetzea, 12-14 °C artean. Tenperatura altuegi edo baxuegian bere ezaugarriak galduko ditu.

http://www.sagardotegiak.com


Ondo pasa
Sagardo egunean!!
ANTXETA
jatetxea
eguneko menuak
karta
plater konbinatuak
ogitartekoak
pintxoak
igandetan menu berezia
Ospakizunetarako toki aproposa!
Eguzkitza, 4 • tel.: 943 37 03 44


Auto Guria
Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak
Osinalde, 9• USURBIL (Gipuzkoa)
✆ 943 363 298 • Faxa: 943 363 862


txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Ondo pasa Sagardo egunean!
Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66


LATAILLADE
ITURGINTZA
Ondo pasa sagardo egunean!
Iturgintza, gas, berogintza eta klimatizazioa
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUAK
ARISTITXO 8 BEHEA
943 363 348 · 609 888 021

erreportajea



# SAGARDO EGUNA, BI JAI EREDUREN ARTEAN

**SAGARDOZALEEK URTEROKO HITZORDUA IGANDE HONETAN DUTE USURBILEN. 29. EDIZIOAK ORDEA ALDAKETAK DAKARTZA, SAGARDO EKOIZLE GONBIDATUEI DAGOKIENEAN. GIPUZKOAKO SAGARDOGILE ELKARTEKO KIDE GEHIENAK EZ DIRA IZANGO SAGARDO FESTAN. BAI ORDEA BESTE HAINBAT. ALDAKETON ATZEAN, SAGARDO EGUNEKO ANTOLATZAILEEK ETA GIPUZKOAKO SAGARDOGILE ELKARTEKOEK FESTA OSPATZEKO BALDINTZA BATZUEN INGURUAN DUTEN DESADOSTASUNA LEGOKE.**

**Hasiera batean, begi bistako aldaketarik ez du sumatuko maiatzaren 23ko sagardo festara hurbilduko denak. Pintxoak, sagardo postuak, giroa eta jendetza, ohiko Sagardo Eguneko osagaiek ez dute hutsik egingo igandean. Baina postuz postuko osteratxoa egiten dabilenak, zer sagardo dastatzen ari den ezagutzeko jakin mina duenak, berrikuntzak sumatuko ditu.**



AURTENGO SAGARDO EGUNEAN ANTZEKO IRUDIAK ERREPIKATUKO DIRA.

Antolatzaileek gonbidatu dituzten sagardogileen artean, izen berriak daude, eta beste asko, ezagunak, urte luzez Usurbilgo festara gonbidatu dituztenak ez dira igandeko hitzorduan izango. Sagardo Eguna prestatzeko lanean dabilen herritar taldea, aurreko edizioetan bezala, Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko kide diren berrogeitik gora ekoizlerekin harremanetan jarri da eta igandeko hitzordura etortzeko gonbita luzatu die.

**ANTOLAKETA KONTUAK**

**"Betikoa egitera joan gara, horretan saiatu gara", dio antolakuntza taldeak. Baina Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko gehienen ezezkoa jaso dute**

"Betikoa egitera joan gara, horretan saiatu gara", dio antolakuntza taldeak. Baina aipatu elkarteko hiruzpalau ekoizle kenduta, gainerakoen ezezkoa jaso dute, kale egingo dute 29. edizio honetan.

Ondorioz, Sagardo Eguneko antolatzaileek Gipuzkoako Sagardogile Elkartetik kanpoko sagardogileen artean aurkitu dute konponbidea. Santo Tomas azokan parte hartzen duten sagardogile usurbildar batzuen sagardoa edan ahal izango da aurtengo Sagardo Egunean, hala nola, Gipuzkoan bertan ekoiztutako sagardo gehiago ere eta baita inguruko herrialde zein Euskal Herritik kanpokoa ere.

### Neurriak, pixkanaka hedatu nahi

Aurten gertatu dena hobeto ulertzeko, Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak herrialdean ospatzen diren sagardo egun edo festatan bultzatu nahi dituen zenbait neurri kontuan hartu behar dira. Sagardo Eguneko antolatzaileek orain arteko jai eta antolakuntza ereduari eutsi nahi izan dioten artean, duela urte batzuetatik Gipuzkoako Sagardogile Elkartea herrialdean ospatzen diren 65 sagardo egun edo festetan zenbait baldintza bultzatzeko lanean dabil.

## "SAGARDOAREN IRUDI EGOKIA ETA EGUNERATUA"

Elkartekoen helburua, sagardoaren inguruan burutzen diren ekitaldiek, "sagardoaren irudi egokia eta eguneratua ematea" litzateke. Argitu nahi dutenez ordea, "Elkarteak ez du esaten sagardoa modu duinean zaindu eta zabaltzen ez denik". Are gehiago, bilguneko sagardotegiek promozio gune oso ontzat jotzen dituzte sagardo egunak, baina elkartetik adierazi dutenez, "baldintza batzuk betetzen diren neurrian".

Aipatu moduan, sagardo egun edo festak ospatu ahal izateko, oso oinarrizkotzat jotzen dituzten zenbait baldintza betetzea eskatzen hasi dira elkartetik, euren esanetan, "poliki-poliki zabalkundea izan dezaten". Neurriok oro har oso harrera ona izaten ari direla diote elkartetik.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

erreportajea



# NEGOZIAZIOAN EZ DA ADOSTASUNIK IZAN

**GAI HONEN INGURUAN HITZ EGITEKO BI ALDEAK, SAGARDO EGUNEKO ANTOLATZAILEAK ETA GIPUZKOAKO SAGARDOGILE ELKARTEKO KIDEAK BILDU DIRA AZKEN HILABETEOTAN. SAGARDO EGUNEKO ANTOLAKUNTZA TALDETIK OROITARAZTEN DUTENEZ, GAI HONEN BERRI 2009KO EDIZIOAN IZAN ZUTEN, ORDUKO HARTAN ORDEA, "GAUZAK ZEUDEN BEZALA GERATU ZIREN". ELKARTETIK DIOTENEZ, IAZ IRAGARRI ZITUZTEN AURTENGO BALDINTZAK ZEHAZTEN ARI ZIRELA.**

**Aurten ere, gehiagotan bildu dira bi aldeak, baina sagardogile elkartetik bultzatu nahi dituzten neurriek desadostasuna sortu dute. Guztiak bat datoz bi alderdietan; batetik, Elkarteak baldintza batzuk jarri dizkiotela Sagardo Eguneko antolatzaileei Sagardo Egunari begira, eta bestetik, Sagardo Eguneko antolatzaileek ez dituztela neurriok onartu nahi izan.**



IAZ, 40 POSTU JARRI ZITUZTEN; AURTEN 30 IPINIKO DITUZTE.

Sagardo Eguneko antolatzaileek ordea desadostasuna eragin duen neurria zein den aipatzen dute. Baldintzen artean, bazen bat sagardo kaxengatik ekoizleei ordaintzea eskatzen ziena. Bi aldeak gai honen inguruan negoziatzen aritu ziren arren, "azkenean ez ginen akordio batera ailegatu". Elkartetik azken orduko proposamen bat egiten dietela adierazten dute, nahiz esperotako emaitzarik ez izan.

**HANGOA ETA HEMENGOA**

**Lehen Sagardo Egunean ia denak Gipuzkoakoak ziren. Aurten, Usurbilgo hainbat ekoizleren sagardoa izango da eta baita Bizkaia, Nafarroa zein Kantabriatik ekarritakoa ere**

Desadostasunak eragina izan du aurtengo Sagardo Egunean. Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko ekoizle gehienek igandeko festara ez etortzea erabaki dute. Ondorioz, Sagardo Eguneko antolatzaileak elkartetik kanpo sagardogile gehiagoren bila aritu dira. Usurbildik hasita, Gipuzkoan bertan eta baita inguruko herrialdeetan, eta Euskal Herritik kanpora ere. Eta baita aurkitu ere.

**Aurten, 10 postu gutxiago**

Etxerako sagardoa egiten duten ekoizleak, edota beste elkarte batzuetako kideak tartekatuko dira Dema plazan edota frontoian igandean jarriko diren postuetan. "Usurbilen dauden sagardoa egiten duten baserriei etortzeko nahia ote zuten proposatu genien. Batzuk etorriko dira, baita Bizkaiko bi ekoizle, Nafarroako beste bi, Kantabriatik etxerako sagardoa egiten duten hiru etortzekoak dira, eta baita beste bi elkarte ere", adierazi dute antolakuntza taldetik.

Sagardogileen jatorriari dagokionean beraz, balantza irauli da aurtengoan. "Kanpotik sagardogile gehiago izango dira. Lehen denak Gipuzkoakoak izaten ziren, bakarren bat kanpokoa izaten zen. Kanpoko bakarren bat gehiago izango da aurtengoan" , adierazi dute antolakuntza taldetik.

Erlojuz aurkako saiakera izan da. Aldaketei aurre egin, eta ordezko parte hartzaileak bilatzeko bi hilabete baino ez dituzte izan antolatzaileek. Martxoa erdialdetik hona, buru-belarri prestakizun lanetan murgildu ostean, azkenean iazko edizioko postu kopurua berdintzeko gutxi falta izan zaie. Berrogei sagardogile inguru baziren 2009ko Sagardo Egunean, aurtengoan, hogeita hamarren bueltan ibiliko dira. Guztira, hamar bat postu gutxiago baino ez.

**"Etortzen direnak beren borondatez etorriko dira"**

Igandeko Sagardo Egunera datozenen nahia azpimarratu dute antolakuntzatik. "Etorriko direnak beren borondatez etorritakoak izango dira", adierazi dute.



# ELKARRIZKETARAKO, BIDEA IREKITA

**Aurten gertatutakoa, datozen Sagardo Egunei begirako aurrekaria izan daitekeen edo ez, ikusteke dago oraindik. Antolakuntzatik argi diote: "Aurtengoa egin dugu. Datorren urterako hitz egin behar badugu, ez dago arazorik".**

Gipuzkoako Sagardogile Elkarteko sagardo egun eta dastatzeen batzordetik ere arazorik ez da adostasun batera ailegatzeko. "Elkartearen nahia da, Sagardo Egun guztiekin iristea akordio batera eta horretarako beti daude ateak zabalik. Ea datorren urterako Gipuzkoako sagardotegiek dagokien lekua duten Usurbilgo Sagardo Egunean", adierazi dute NOAUA!ra igorritako adierazpenetan.

Artean, goza dezagun hiru hamarkada betetzear den Sagardo Egunaz. Guztia prest dute antolatzaileek iganderako.

# SAGARDOGILE ELKARTEAK BULTZATU NAHI DITUEN BALDINTZAK

**Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak bultzatu nahi dituen baldintzen artean, sagardoaren kontsumo arduratsua bultzatzea legoke, sagardo trago kopuruan neurria jartzea alegia. "Inori ez diogu esan nahi zenbat edan behar duen, baina nolabaiteko neurri bat jartzea garrantzitsua ikusten dugu produktuaren irudirako", diote sagardogile elkartetik. Leku batzuetatik halako neurri eske hasi direla ere gaineratzen dute.**

Sagardoa zenbat eta zer tenperaturatan zerbitzatu, horiek lirateke sustatu nahi dituzten beste arauetako batzuk. Elkarteak sagardoari prezio sinbolikoa ere jarri nahi dio, "garrantzitsua da eta produktuari garrantzia bat ematea, nahiz antolatzaileentzat nahiz sagardotegientzat".

Sagardoak eman beharreko irudiaren edota zabaldu nahi den mezua ardatz duen azterketa batean oinarrituta planteatu dituzte baldintza hauek.

Neurriok aplikatzea erabaki aurretik, gaia batzarretan eztabaidatu eta onartu da, elkartetik gogorarazten dutenez, "sagardotegi guztien artean". Orokortzat jotzen dituzten baldintza horietatik at, beharrezkoa iruditzen zaio elkarteari, "Sagardo Egun bakoitzak bere autonomia izatea" eta bultzatzea.



## BALDINTZA NAGUSIAK

**-Sagardoa zer tenperaturatan eta nola zerbitzatu.**
**-Edalontzia: trago kopuru txartelen sistemaren bidez antolatzea. Trago bat, txartel bat.**
**-Sagardoari prezioa jartzea.**
**-Sagardo Egunentzat zerbitzuak eskaintzeko aukera: lekua, kartelak eta txartelak egin edota sagardoaren garraiatzea.**

# SAGASTIETAKO LANEN ERAKUSKETA SAGARDOETXEAN

**Sagastiak loretan daudela kontuan izanda, sagastietako lanen erakusketa antolatu dute Astigarragako Sagardoetxean. Maiatzaren 23a bitartean ikusgai izango da.**

Egun hauetan Astigarragako Sagardoetxera hurbiltzen direnek elementu ezberdinak topatuko dituzte: metak, saskiak, txertoak, hesiak, nekazariaren lanabesak, etb… Denak, sagastien munduarekin lotutakoak.

Bisita gidatuak ere egingo dira aste osoan zehar. Hori bai, beharrezkoa izango da aurrez erreserba egitea. Hauek dira museoko kontaktuak:

Telefonoa: 943 550 575
info@sagardoetxea.com




BISITA GIDATUAK ERE ANTOLATU DITUZTE SAGARDOETXEAN.







Ondo pasa
Sagardo egunean
eta txukun ibili!
ARDI BELTZ
GARAGARDOTEGIA
• Entsalada bereziak • Plater konbinatuak
• Eguneroko menua • Asteburuko menua
• Bokatak eta razioak• Inportatutako garagardoak.
Puntapax 12 • USURBIL • ✆ 943 367 054


LOURDES LARRAÑAGA
•FOTO-DEPILAZIDA
•OPARIAK
Ondo pasa
Irazu kalea,12-behea
✆ 943 362 887


Ondo pasa
Sagardo Egunean
JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8 • ✆ 943 370 008

# SAGARDO BOTATZAILEEK BILERA DUTE OSTEGUN HONETAN

**Igande honetan, maiatzaren 23an ospatuko da XXIX. Sagardo Eguna. Egun handia iritsi baino lehen, antolatzaileek sagardo botatzaileekin bildu nahi dute. Ostegun honetan egingo da bilera, iluntzeko 20:00etan Udarregi ikastolan.**

Igandean sagardoa botatzen parte hartu nahi dutenei zuzendutako deialdia da. Garrantzizkoa antolatzaileen esanetan, aurtengo edizioaren nondik norakoen berri emateko. Antolakuntzatik jakinarazi dutenez bestalde, Sagardo Egunerako sukaldari laguntzaileak behar dituzte.



UDARREGIN EGINGO DA BILERA,








ARTOLA
NEKAZALTURISMOA-SAGARDOTEGIA
943 55 72 96
637 03 56 79
www.artolasagardotegia.com
santiagomendi auzoa, ASTIGARRAGA


BENTA TABERNA
ERAMATEKO OILASKOA PATATAREKIN
10 €
Ondo pasa sagardo egunean!
943 36 93 05
663 60 00 20


URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK
urdaintzi@euskalnet.net


Ondo pasa Sagardo egunean!!
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
izAgirre
ELEKTRIZITATEA

Noaua! Astekaria. Gehigarri berezia

# Sagardo Eguna 2010

11.30 — 11:30 Egunaren irekiera.

11.30 — 11:30-14:00 Sagardo desberdinak dastatzeko aukera, gozogintza, pintxoak, barrika baten muntaia…

12.00 — 12:00 Sagardo botatzaileen lehiaketa.

17.00 — 17:00 Erromeria frontoian, “Kantuki” taldearekin eta “Jun da Jo” txaranga kalejiran.




## Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Presoen eskubideen aldeko eskualde mailako elkarretaratzea burutuko da Sagardo Egunean. Ohi bezala, hitzordua eguerdiko 13:00ean Mikel Laboa plazan.




atxega jauregia
ondo pasa sagardo egunean!
reservas@hotelatxega.com
Aitzezarra kalea, Zumartegi poligonoa
Tel.: 943 371 150 - 943 376 666
· Ezkontzak, jaunartzeak, ... edozein ospakizunetarako toki egokia.
· Eguneroko menuak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak · Pintxoak


ANGULAS Y MARISCOS
A. BRUNO E HIJOS, S.L.
ANGULAK ETA ITSASKIAK
Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu.
Egin ezazu zure eskaera telefonoz
943 37 27 88 Usurbil
Legarde Kaleko Zumartegi
65€


Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 372 679
649 435 470
kale nagusia 47, behea A


Txiriboga
Ondo pasa
sagardo egunean!

# BATEKIN NAHIKOA EZ? SAGARDO EGUN GEHIAGO BADIRA

**Maiatzak 22, Lezoko Sagardo Eguna.** XII. Sagardo dastaketa eta lehiaketa.
Antolatzailea: "Tiñelu" elkartea.

**Maiatzak 22, Baionako Sagardo Eguna.** Iparraldean ospatzen den garrantzitsuena da. Hiruki Elkarteak antolatuta, sagardoa dastatzeko aukera izango da.

**Maiatzak 29, Oiartzungo Sagardo Eguna.** Sagardo dastaketa. XII. Sagardo lehiaketa.
Antolatzailea: "AEK Intxixu".

**Ekainak 5, Pasai Antxoko Sagardo Eguna.** Sagardo dastatzea. Bertsolari, txalapartari eta txarangek azoka alaituko dute. Antolatzailea: Alkartasuna Taldea.










mur
ERROTULUAK
Ondo pasa sagardo egunean!!
Mota guztietako errotuluak
·Ibilgailuak ·Erakustokiak
·Pankartak ·Kartelak
· Inpresio digitala ...
kale Nagusia, 10 · Tel/Faxa: 943 36 60 21

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo
Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak
Ola Kalea, 12 - behea, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Faxa: 943 370 306
fisioibaiondo@gmail.com

LAUKOTE
urtebetetzeko meriendak
ENKARGU BIDEZKO TARTAK
SU-EGURREKO OGIA
OPILAK

edaritegia
BORDATXO
Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak
ondo pasa
Sagardo Egunean !!
Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42



Usurbilgo Udala

# XXIX. Sagardo eguna

maiatzak **23**

**Sagardoaren** txinpartak **on egin** dagigula **denoi!**

Usurbil
osasuna atez ate